

Arrasate

P R E S S

1995eko
irailak 22
289. zenb.

ELKARRIZKETA

Begoña Falces


KULTURA


Gloria Martinez

KIROLAK

Fertxu Rodriguez
'Arrate' taldera

Tenporak





**Zinemak 100 urte...
euskarak milaka!**

Arrasateko ERDU-AEK euskaltegia

EUSKARA IKASTAROAK

- Maila guztiak
- EGA eta Alfabetatze
- Gurasoentzat klase bereziak

**Matrikula epea
Irailak 28ra arte
Beka sistema**

**Barnetegiak FORU eta ONDARROAN.
Informazioa: 625 35 69**



**Informazio eta matrikula
Garibai, 14 - 3.
☎ 77 03 69**

Elkarbizitza

Bai estatu mailan, bai herri mailan, ah zer nolako gizatasun gabetasuna! ah zer nolako etika falta! Gertatzen ari direnak eta bizitzen ari garen giroa eta jokoa nahikoa dira aspalditik herrigintzan ari garenok nazkatzeko eta, gure gizarte eta herriaren etorkizuna diren belaunaldi berriak pasotak edo radikalak bihurtzeko.

Bai agintariek eta baita agindu nahi dutenek ere gezurra, jendearen manipulazioa, legeria eta indarkeria besterik ez dute erabiltzen "bera" lortzeko. Bitartean, herria eta herritarrok, hor konpon!, sufri dezatela. Oihanaren legea da nagusi: indarkeria eta bortxakeria. Tamalez, herriaren ona eta eskubideak erakargailu eta manipulazio bide bezala erabiltzen dira; pragmatismoa, alderdi bakoitzaren burruka ezgizakoa eta giza-eskubideen ukamena "justifikatzeko".


Urte gehiegi daramagu gizarte giroa eta bihotza pozoitzen, gure asmo eta borrokarekin ados ez dagoen oro etsai bihurtzen eta erasotzen, oihanaren legea gidari, indarra indarraren aurka erabiltzen. Zergatik ez gizalegea? elkar errespetoa nahiz eta ados ez egon, elkarriketa eta lan baterakoa?

Nik, Nazareteko Jesusengan ikasi dut norgehiagoka garbian borroka egiten, leialki jokatu, "nire egia" aurkeztuz eta ez inposatuz, inolako bortxakeriarik gabe, ahal izanez gero "beste" ere salbatzen.

Gizakia -zer esanik ez, alderdia edo edozein mugimendu politiko- ez da inoiz **egia absolutoaren** jabe, ez eta Eliza bera ere; gehien, egiaren ikuspegitxo baten jabe besterik ez gara; eta ikuspegi alderdikoi hori guztioi inposatu? gehiago oraindik, bakoitzaren historiak, ideologiak, bizikizunak eta abar, baldintzatua izanik ere? Gauzak horrela badira, non gelditzen dira gure gizarteak bizi dituen alderdikeria, legeria eta indarkeria? Gutxieneko etika-gizakoi bat falta zaigu herrigintzako lan eta borrokan; dena da erabilgai, trukegai. Ez arrazoiak, ez eskubideak, ez dute balio. Trukearen jokoan erori gara, eta etika gabeko gizarte hondamendira doa.

Has gaitzen elkarbizitza gizakoiago bat lantzen eta eraikitzen, etxetik hasita, udalan eta herrian. Ahalegin horretan, zuekin naukaze.

JOSE MARI ASTIGARRAGA
"SAGARRAGA"



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65, Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Iker Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortz, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrariaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Ralfa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaita. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldirizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

**GATZAGAn,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Irati Bizirik

Abuztuko egun ekuzkitsu bat zen eta Irati ibaiaren inguruetara abiatu ginen ni eta nire bi lagunak. Bero handia genuen; kanpin-denda montatu genuen eta izerdi patsetan geunden. Irati ibaira jeistea erabaki genuen pixkat freskatzera. Garbi garbia zegoen. Gardena, fresko freskoa eta bizitzaz beterik aurkitu genuen ura. Toki askotatik etorritako jende ugari zebilen inguru haietan: euskaldunak, kataluniarrak, madrildarrak, balentziarrak, frantziarrak, errioxarrak... Jende ezberdin ugari baina denak helburu berdin batekin: Irati ibaia, Txintxurrenea, Gaztelu eta Iñarbe erre-serba naturalen eta hainbat pertsonen bizilekuen alde borrokatzea; bertoko natura eta animaliak uraren hatz-parretatik salbatzea, gober-



nu eta enpresa handinahien aberasteko desioa gero eta indartsuagoa baita.

“Baina, zer egingo dute urarekin?” galdetu genuen guzti hartaz harriturik. Gobernuak dio Nafarroako Erriberako lurak ureztatzea dela helburua baina hori ez da egia. Ur hori guztia (418m³) Ebroren trasbaserako erabiliko dute Mediterranearen kostaldean dauden enpresak eta turismoa (golf parkeak, pizirnak etab.) hornitzeko. Izugarria iruditu zitzaigun.

Berriz ere ibaira jeitsi

ginen. Beste guztiak bezala biluzturik, uraren goxotasun eta freskotasunaz gozatu genuen. Amuarrainak ikusten genituen gure inguruan gora eta behera eta zerua zeharkatzen arrano bat. Dena zuhaitz eta landarez josita, edertasunaren edertasun. Naturaren abestia entzuten genuen bitartean, bazen hau apurtzen zuen zerbait: Txintxurreneako harrobiko leherketak, harria txikitze erro-taren hotsa... Nola liteke horrelako alderdi zoragarri bat urperatu nahi izatea? Ingu-

ru hau guztia ikusi arte ezin imajina daiteke zer den egin nahi dutena; zer den urperatu nahi dutena.

Informa zaitez; informaturik dagoen pertsona, Itoizko urtegiaren aurka dagoen pertsona da eta. Urtegirik ez. Gure lurra defenda dezagun.

OIHANA J., NEREA A.
ETA GARBINE P.

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatze ailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

Harpidedun, berri edo oparitu harpidetza!



Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **2.500 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 20a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).


Ingreso egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS kanpotar bati bidali nahi badiozu zotuz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

77 08 15

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE

Zein da sekula ikusi duzun pelikula onena eta txarrena?




Mikel Irazabal
Ikaslea
(19 urte)

Ikusi dudaz azkena gustatu zitzaidan: "Dos Policías Rebeldes". Txarrak? Ba, Tele 5n botatzen duten edozein.



Maria Rosario Arana
Etxekoandrea
(29 urte)

"Dos Policías en New York" asko gustatu zitzaidan. Beldurrezkoak eta tiro asko dutenak, berriz, ez zaizkit gustatzen.




Eñaut Arriaran
Ikaslea
(18 urte)

"El Silencio de los Corderos" oso ona iruditu zitzaidan. "Rapa Nui", berriz, oso txarra da.



Ainhoa Gurrutxaga
Ikaslea
(14 urte)

On bat, "Liberar a Willy 2". Txarra? "La tribu de los Brady".




Jose Ramon Urzelai
Pentsioduna
(49 urte)

"Ciudadano Kane" benetan ona da eta txarrak Westerm Spaguettiak. Pelikula horiek hildakoak kontatzeko bakarrik balio dute.



Marcela Inciarte
Jubilatua
(80 urte)

"La gata sobre el tejado de cinc" eta "Lo que el viento se llevó" oso onak. Gustatzen ez zaizkidanak beldurrezkoak dira.



Angel Rodriguez
Langilea
(50 urte)

"Los Hijos de Dios" zoragarria da, harriek ere negar egiten dute pelikula horrekin. Lehengo egunean, berriz, "Huevos de Oro" ikusi nuen, ez dauka ez buru eta ez hankarik.



Consuelo Arroyo
Etxekoandrea
(42 urte)

"Forrest Gump" zineman ikusi nuen eta polita iruditu zitzaidan. "Nell", berriz, astu-negia da.



IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

GARE ESTETIKA ETA
MEDIKU ZENTRUA

- Koipearen desegitea saio bakarrean
- Aurpegia eta zimurrak gaztetu
- Dieta pertsonalizatuak medikuaren jarraipenaz



San Vicente Ferrer, 2 behe (Grupo San Juan)
Tfnoa: 79 55 25 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltaldea79 09 00
 Udaltaldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22
 Egunez eta gauzez : Amezua, Santamaina.
 10ak arte: Estella, Bergara.

Larunbata 23
 Egunez eta gauzez : Ruiz, Maala.
 10ak arte: Mozos, Berbara.

Igandea 24
 Egunez eta gauzez : Morales, San Andres.
 10ak arte: Mozos, Bergara.

Astelehena 25
 Egunez eta gauzez : Azkoaga, Ferrerías.
 10ak arte: Camacho, Bergara.

Asteartea 26
 Egunez eta gauzez : Español, Iturriotz.
 10ak arte: Puy, Bergara.

Asteazkena 27
 Egunez eta gauzez : Corcuera, Musakola.
 10ak arte: Cuellar, Bergara.

Osteguna 28
 Egunez eta gauzez : Irizar, Erguin.
 10ak arte: Estella, Bergara.

22 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Preso de la secta" 7etan eta 10etan.

• **SAN MIGELAK ARETXA-BALETAN**
 Arratsaldeko 6etan kanpai jotzea eta txupinazoa. 6.15etan bonba japoniarren jaurtiketa. 6.30etan buruhandien kalejira txistulariekin. 7etan kale animazioa Kukubiltxo taldearekin. Gaueko 10.15etan Aretxabaletako akordeoi orkestraren kontzertua Durana kalean. 11etan pilota partiduak Iturrigorri frontoian.

ARRASATEKO INSTITUTOAN IKASTURTE HASIERA

Arrasateko batxilergo Institutoan 95-96 ikasturtearen hasiera irailaren 26an izango da. BBB 1 eta IEE 1eko ikasleek goizeko 10.30etan izango dute aurkezpena. BBB 2 eta IEE 2koek 11.30etan. HSA 2koek eta UBikoek 12.30etan.

ESKORIATZAKO KIROLDEGIA

Eskoriatzako frontoia eta kiroldegiko kantxak alokatzeko zozketa irailaren 23an eguerdiko 12etan egingo da.

23 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Congo" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **KIROL INSTALAKUNTZAK ALOKATZEKO BILERA**
 Musakola eta Iturripeko kiroldegietako frontoia, futbol, tenis eta squasheko kantxak alokatzeko bilera goizeko 10.30etan Musakolako kiroldegian.

• **SAN MIGELAK ARETXA-BALETAN**
 Goizeko 10etatik 2.30ak arte "Guinness" liburuko marka hautsiko duen txanpon bilketa BUKAVU proiekturako Durana kalean. 11.30etatik 2ak arte gaitero eta trikitilarietara kalejira. 12etatik 6.30ak arte umeendako parkea plazan. 2.30etan herri bazkaria. 7etan Beinke-Loramendi dantza herriko plazan. 7.30etan Egaña eta Muruarekin bertsoari saioa. 10.30etan Txinparta taldearekin dantzaldia. 11etan pilota partiduen finala.

• **ARTISAU ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKO FERIAK**
 Goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte Artisauren feria Herriko plazan. Goizean berriz, Nekazaritza ekologiko feria Gernika plazan eta eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian

• **ITOIZKO URTEGIAREN AURKAKO MANIFESTALDIA**
 Itoizko urtegiaren aurkako manifestaldira joateko autobusak antolatuta dira. Autobusa arratsaldeko 3.45etan irtengo da Arbolapetatik.

• **BERTSO JAIALDIA BERGANAN**
 Jardun elkarteak antolatuta bertso jaialdia gaueko 10.30etan Mariaren Lagundiako aretoan. Sarrera 700 pta.

24 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Congo" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **SAN MIGELAK ARETXA-BALETAN**
 Eguerdiko 12etan Aretxabaletako Bandaren kalejira. Ordubatean kontzertua Durana kalean. 4etan III. San Migel mus txapelketa. 5.30etan buruhandien herriko txikitilarietara. 8etatik 12etara Intxausti eta Munduate trikitilarietara dantzaldia Durana kalean. 5etan futbol partidua, UDA- Ilintxa.

• **MENDI IRTEERA BESAIDE-REKIN**
 Otsaurte Lizarrustira mendi irtetara goizeko 7etan Garibaitik. Besaide Mendizale Elkar-teak antolatuta.

• **ARTZAI-TXAKUR TXAPELKETA OÑATIN**
 XXXVI. Nazioarteko artzai-txakur txapelketa goizeko 11etan Oñatin.



OÑATIKO XXVI. NAZIOARTEKO ARTZAI-TXAKUR TXAPELKETA

Oñatiko Santa Lutzia zelaian artzai-txakuraren ikuskizun ederraz gozatzeko aukera egongo da igande honetan goizeko 11etatik aurrera. Nazioarteko txakurrik finenak bertan.

25 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Congo" 7etan eta 9.30etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
San Andreseko auzo alkatetzan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

26 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Congo" 7etan eta 9.30etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Abaroan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

27 ASTEAZKENA

- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Uribarriko auzo alkatetzan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

28 OSTEGUNA

- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Santamainako auzo alkatetzan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.



GERONTOLOGIA LAGUNTZAILE IKASTAROA

Azaroaren 2tik maiatzaren 30a arte, 180 ordu. Ordutegia: astearte eta ostegunetan 5.30etatik 8etara. Izena emateko epea urriaren 23an bukatuko da. Informazio gehiagorako deitu 79 02 11 edo 77 05 00 zenbakietara goizeko 10etatik 12.30ak arte eta 2etatik 6etara.

FAMILI ETA GIZARTE HEZKETA- RAKO ZENTRUAN IKASTURTE HASIERA

Famili eta gizarte hezketa- rako zentruan izena emateko epea urriaren 6a arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako 79 04 59 zenbakira deitu. Bricolage eta altzairuen zaharberritze ikastaroa urriaren 2an hasiko da. Bestalde, iazko ikasturteko ikasleek irailaren 28an izango dute bidaia Iparral- dera.

GARAPEN PERTSONA- LA IKASTAROA

Talde dinamika eta laguntza teknikak norbera ezagutu, komunikatu eta horren bidez arazo pertsonalak konpontze- ko. Ikastaroaren hasiera irailaren 29an eta bukaera abenduaren batean. Klaseak ostiralero goizeko 9.45etan eta arratsaldeko 6.45etan. Arrasateko yoga elkarteak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira.

HASIERAKO MASAIA IKASTAROA

Hasiera irailaren 30ean eta bukaera abenduaren 2an. Zapaturo arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Masaia ikastaro trinkoa urriaren 12, 13, 14 eta 15ean ostegunetik igandera arte, Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira.

SAN FRANTZISKOKO KATEKESIA

Ikasturte honetan San Frantziskoko katekesian ibili nahi duten umeei 25etik 27ra eman dezakete izena Sebero Altubeko aretoan arratsaldeko 6etatik 7etara.



PINTURA ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

Gloria Martinezen pintura erakusketa Harresi aretoan irailaren 22tik urriaren 8a arte. Ordutegia: egu- nero arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaie- gunetan eguerdiko 12etatik 2ak arte eta arratsal- deko 6etatik 8etara.

“Beharrezkoa da soziologia eta gizakiaren egoera kontuan hartzea azken bi legealdiotan Xabier Zubizarreta, Legebiltzarreko parlamentaria HB ordezkatzuz, puñalkada politikoei esker nola aukeratu duten berriro alkate ulertzeko ‘PNV eta EAKoek ez dizute sekula aurpegira esango, baina egia da hemen guztion benetako etsaiak sozialistok garena, ez bakarrik HBkoenak. Helburua gu gobernuan sartzea ekiditzea da. Horri gehituz gero Zubizarreta bidaltzeagatik jaso dezakezun egurraren beldurra, hemengo mapa politikoa eraiki daiteke’ esaten du udaletxeko trikimailuak ondo baino hobeto ezagutzen dituen militante sozialista batek”

Irailak 17

El País

“Euskarazko herri-prentsa hizkuntza-normalkuntzaren bermatzaile bihurtu da. Zabalkunde orokorreko egunkariak ez diote aurre egin nahi izan hizkuntza-normalkuntzari, eta, merkatu-kuotak galtzeko beldurrez, gaztelania edo frantsesa erabiltzen jarraitzen dute. Egia da batzuek noizbehinka saialditxo batzuk egiten dituztela euskaraz, baina ez dira ausartzen edo ez dute borondaterik euskara erabiltzeko. Euskara ez bide da errentagarri zabalkunde orokorreko egunkarientzat. Euskarazko herri-prentsak, ordea, argumentu horrek pisurik ez duela frogatu du”.

Jose Felix Diaz de Tuesta. Irailak 17.

Egunkaria

“Anne Igartibururen estiloa aipatzean oso kontu kontrajarriak esan daitezkeela egiten zait. Neska honek -errespetu osoz esanda, noski- ez duela “funtzionatzen” esango nuke nik. Gazteleraz hitz egitean berez duen euskaltasunak kalte izugarria eragiten dio oraingoz, nahiz eta hobetuz doan. Ematen duen baino gazteagoa da, gainera, eta Iturriaga baten aurrean hori igarri egiten da batzuetan”.

Fermin Etxegoien. Irailak 19.

Egunkaria

Hasi zarete Maritxu Kajoi eguna antolatzen?

Urtero bezala udako oporren ostean Maritxu Kajoi Batzardea batu zen, eta ordutik Maritxu eguna antolatzen ari gara. Batzardea hogeitaz hamar egun osatzen dugu eta astean behin egiten dugu batzarra. Jakina, Maritxurako gutxiago falta den heinean sarriago egiten ditugu bilerak eta lana banatzen dugu.



Nagore Iraola

Maritxu Kajoi Batzardeko partaidea

Momentu honetan Maritxurako aurrekontua eta egitaraua finkatzen ari gara eta ondoren dirua jaso asmoz, taberna eta jatetxeetara ere joko dugu.

Aurten gainera, herriko jatetxeei ezezik, inguruko herrietakoei ere eskatuko diegu Maritxu eguneko gastuak ordaintzeko dirulaguntza. Azken batean, Maritxu eguna dela eta inguruko jatetxeak ere bete egiten dira. Horrez gain, beti moduan Maritxu egunean eskalarioak eta tabernetan txanpaina salduko dugu.

Bestalde hasi gara harremanetan Parrokiako Batzardearekin, Maritxuri egiten zaion lore eskaintza ohiko tokian egin dadin. Amabirjina urte luzetan toki horretan izan denez, Parrokiak erdiko kaleari begira duen atean ikustea espero dugu.

Aurten hemeretzigarren urtez ospatuko dugu Maritxu Kajoi eguna eta beti moduan dotore-dotore kalera irtetzea eskatu nahi genioke jendeari. Hori bai, kalean entzuten denez, batzuk diru asko gastatzen dute egun horretarako arropa egiten eta gure ustez ez du merezi hainbeste diru gastatzeak.



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Belem

Zabaldu berria!

- Portugaldik ekarritako artikulua
- Prezio eskusiboak
- Etxerako, momentuan jatzeko eta eskuz egindako artikulua

• Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 • Arrasate
• Herriko plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 • Aretxabaleta

Al-Andalusek 280.000 pta eman Hies Ekimenari

Zapatu gauean Al-Andalusek antolatutako jaialdiari esker, 280.240 pta. jaso ditu Hies-Ekimena taldeak. Jaialdia Amaia antzokian izan zen eta Al-Andalus elkarte ko kultur taldeak aritu ziren kantuan, dantzari eta baita kitarra jotzen ere. Pentsatuta zegoen moduan, andaluziarrek sarreretatik atera zuten dirua Hiesaren aurkako borrokan lan egiten duen taldeari eman zioten. Elkarte biak oso pozik azaldu ziren jaialdiak izandako harrerarekin eta aurrerantzean ere gehiago antolatzekotan geratu ziren.

Uribarri-Erguin jai giroan

Uribarri-Erguingo jaiak izan ziren astebukaeran eta jai giroko ekintzek ezezik, kirolak ere izan zuen tokirik. Domekan Uribarri-Erguin pilota txapelketako finalak jokatu ziren, guztira lau partidu. Alebinetan Belastegi eta Jimenezek irabazi zuten; infantiletan Dominguez IIak eta



Besaide Eguna: euritsua baina jendetsua

Domeka euritsu esnatu arren jende dexente hurbildu zen Besaidera, gutxigora behera 500 lagun. Goizean meza izan zen, aurten mendi istripuz hildako hamairu euskal mendizaleak gogoratzeko. Ostean Pako Iriondok, Mendi Federakuntzako lehendakariak hitzegin zuen eta jarraian festa giroko ekintzak nagusitu ziren: dantzariak, bertsolariak eta erromeria.

Pildainek; kadetetan Lazkano eta Belategik eta afizionatutan Errasti-Uribarren bikoteak. Atletismo probek eta trialsin erakustaldiak ere izan ziren ikusgai.

Bestalde, bi gertakari jazo ziren Erguinen. Ostiral gauean su eman zioten auzoan zegoen edukiontzi bati eta zapatuan, beste bati. Zapatukoak papera zuen barruan eta Oñatiko

Suhiltzaileak sua itzaltzera etorri behar izan zuten.

Eskubaloi txapelketa Arrasatera

Arrasateko taldeak Oñatiko XVIII. Eskubaloi txapelketa irabazi zuen. Finala domekan jokatu zen eta penaltietan herriko taldeak irabazi egin zion Eibarko Arrate eskubaloi taldeari.

JAIOTZAK

- Markel Perez Arroniz. Irailaren 1ean.
- Enara Garcia Gutierrez. 2an.
- Odei Armendariz Lozano. 2an.
- Aitor Beltran de Guevara Brullard. 4ean.
- Izaskun Mariñelarena Fernandez de Ganboa. 9an.
- Mikel Etxebarria Lasa. 8an.
- Ane Olalde Garai. 12an.


EZKONTZAK

- Mikel Martiartu Zugasti eta Miriam Esther Garcia Beltran de Guevara. Uztailaren 15ean. Elizaz.
- Jose Maria Godoy Morales eta Nerea Gutierrez Mujika. 2an. Zibilez.
- Jose Luis Barreino Gorosabel eta Maria Begoña Barrena Aranburu. 2an. Elizaz.
- Jose Martin Elizaran Egidazu eta Maria Luisa Ayesa Azkoaga. 2an. Elizaz.
- Miguel Segovia Rodriguez eta Eva Guerrero Duque. 9an. Elizaz.
- Andoni Roa Usatorre eta Maria Rosario Mora Galeote. 9an. Elizaz.
- Francisco Jabier Garai Barandiaran eta Maria del Rosario Martin Dorado. 16an. Elizaz.

Martin Luis Alvarez Alvarez

1933-XI-6 / 1995-VII-26

Zure poz eta alaitasuna beti gurekin izango dira.



Bere arimaren aldeko meza 25ean, astelehena, arratsaldeko 7etan izango da San Juan Bataiatzailearen Parrokian.

UDALETXEKO LANGILEAK



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK


AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**



* **Pedro Mari
Ruiz de Azua**

Diruaren prezioa jaitsi dela eta...

Joan zen astean entitate finantziario ospetsu batek, bere mailegu hipotekarioaren interes mota jaitsi zuen (nahiz eta Espainiako Bankoak ez jaitsi diruaren prezioa). Jarraian beste bi entitatek, lasterketa balitz bezala, euren interes motak jaitsi zituzten. Zer adierazi nahi du honek? Momentu honetan nabaritzen dela prezioak beherantz joan litezkeela, besterik ez. Zentzu horretan, entitate hauek merkatu finantziarioari erronka egin diote, dudarik gabe arrisku batzuk jasanda baina zerbait ateratzekotan.

Zer irabazi daiteke?

1. Lehen kolpatzen duenak bi alde kolpatzen du. Horrela publizitate mailan inpakto garrantzitsua izango du.

2. Bezero multzo bat. Zer galtzeko arriskutan daude?

1. Dirua. Hau da, euren esplotazio kontuan irabazi txikiak izatea edo behar bada zerbait galtzea kontratu horiekin.

.....

“Badirudi diruaren interes mota jaitsi egingo dela.

10-12 urtetara begira gora beherak izango ditu, noski; baina bere joera beherantzakoa izango da”

Bataz bestekoa eginda eta kontuan hartuta zenbatekoa izan daitekeen publizitatearen bidez lor daitekeen inpaktoa, kontuak euren aldekoak izango dira, gehienbat lehenengo kolpatu duenaren aldekoak.

Dena dela, badirudi diruaren interes mota jaitsi egingo dela. 10-12 urtetara begira gora beherak izango ditu, noski; baina bere joera beherantzakoa izango da. Honekin azaldu nahi dut entitate finantziario guztiak nahi eta nahiez merkatuaren arauen barruan jokatu beharko dutela, ez badute kanpoan gelditu nahi.

Baina kontuan hartu behar da nondik hornitzen den maileguaren merkatua, gehienbat aurreratzaileen deposituetatik. Beraz beste apunte bat agertu beharrean nago; hau da, epe laburrera aurreratzaileek jasotzen dituzten interes mota horiek ere jaitsi egingo direla.

Gogoratzin duzue mailegu hipotekarioak %16/18 bitartean egon zirenean?

Gogoratzin zarete plazora jarritako deposituak %13an zeudenean?

* **ITURRIOTZEKO
EUSKADIKO KUTXAKO
ZUZENDARIA**

USTEAK USTE

**HASI DA
ESPEKTAKULOA!**

Ikasturtearekin batera hasi dira telebistak programazioa aurkezten, zein baino zein ederragoa: denek pelikularik onenak emango ei dituzte, telesailik interesgarrienak, umorerik zorrotzena, elkarrizketa eta eztabaidarik polemikoenak, albistegirik inpartzialenak, eta kirola noski.

Gero fitxaketak: batak aparteko aurkezailea kontratatu duela, besteak profesional izugarria, baten bat kontratu barik...

Denak nor gehiagoka orain baino ikus-entzule gehiago lortzeko asmoz. Aurkezpenak aurkezpen eta asmoak asmo, programazio zoragarriok martxan jartzen direnean ohartuko gara pelikulak ez direla hain onak, telesailak lotsagarriak, umorezko programei irudimena falta zaiela, eztabaidak ez direla interesgarriak zeren eta edo zirko bat montatzen dute edo parte hartzaile guztiak antzerako pentsamoldea dute, albistegiak berriz hobeto aipatu ere ez egitea.

Batek baino gehiagok nekatu arteko “zapping” egin eta makinatxo bat iragarki irentsi beharko du zerbait ganorazkoa ikusi orduko.

Eta txar txarrean hemen ATB dugu, beste munduko ezer izan barik eta aurkezpen zaratasurik egiten ez badu ere, bere zer egina betetzen du, eta hori ez da gutxi.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**Hilbera
kafetegia**



Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinezko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoa: 79 22 55 79 14 25



EAKo hiru zinegotziak: Isabel Gallastegi, Pello Urizar eta Juan Antonio Barriocanal.

EAKoen joera ezagutzeko balio dezakeen plenoa

Gaur arratsaldeko plenoan espero da jakitea EAKo zinegotziek zer erabaki duten: gobernuan sartu ala hirukoarekin bat egin. Hori argitzen lagunduko du HBk plenoen ordutegia arratsaldera aldatzeko egingo duen proposamenak. Uztaileen EAJ, PSE-EE eta EAKo zinegotzien aldeko botoekin plenoen ordutegia goizeko bederatzietan egitea finkatu zenez, gaur EAKo zinegotziek HBren proposamenaren alde bozkatzaren badute, gobernuan sartzeko asmoz jarraitzen dutela esan nahiko du. Ezusterik ez bada go alde bozkatzeko dutela espero da, bestela arraroa izango litzateke HBkoek gaia berriro plenora eramatea. Horrela izanez gero, EAKo hiru zinegotziek uko egingo liokete joan den aste-

an hirukoaren jarraipen batzordeak zentsura mozioa aurkeztu asmoz sinatu zuen akordioari.

Erabaki horrez gain, beste hogeitatu puntu eztabaidatu beharko ditu udalbatzak, gehienak hirigintzakoak. Udalaren eta Parrokia zaharberritzeko batzordearen arteko akordioa aldatzea proposatuko da. Indarrean dagoen akordioaren arabera, San Juan Parrokiako obrak abendurako bukatu behar ziren, baina hirugarren faseko obrak beranduago hasi direnez, data martxoaren amaierara aldatzea proposatuko da. Bestalde, baserri bideen udal ordenantza behin-betiko onartu beharko du udalbatzak. Ordenantza ekainean izan zen jendeaurrean ikusgai, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Korporazio

berriak alegazioak aztertu ditu eta orain azken onespena eman beharko dio plenoak. Mugarriten industriarako salgai jarri ziren lurra Udalak nori adjudikatu dien jakingo da gaur, eta Abaroa jubilatutako ileapaindegia eta taberna ustiatzeko adjudikazioak ere egingo dira.

Bukatzeko, 95/96 ikasturterako AUKEAk eta Udako Ingurugiro Eskolak finkatu dituzten prezio berriak izango dira aztergai eta administrazio orokorrerako teknikaria kontratatzeko deialdia egingo da. Gainera, aurreko plenoan izendatu barik geratu ziren udal karguak izendatuko ditu udalbatzak.

Plenoa berezia izango denez, arratsaldeko zazpietan egingo da.

Eskola garraiorako dirurik ez

Gesalibar eta Garagartzako auzo alkateek eskola garraiorako egindako diru eskaera ez du onartu Udalak. Hasi berri den ikasturteko garraiorako 300.000 pta. eskatu zitzaion Udalari baina gobernu batzordearen ustez, eskaera Eusko Jaurlaritzan egin behar da.

TECSA auzitegira jotzeko asmoz

TECSAk, 90ean Ferixalekuko frontoia eraikitzeko adjudikazioa jaso zuen enpresak, auzitegira jotzeko asmoa duela iragarri dio Udalari. Udalaren asmoa frontoia eraikitzea denez Udala eta adjudikazioa duen enpresa harremanetan ari dira, baina badaezpada, akordioa betetzen ez bada, auzitegira jotzea erabaki du TECSAk. Adjudikazioa orain dela bost urte egin zen eta, orduan onartutako prezioak eguneratu egin beharko dira.

Bidean proiekturako dirulaguntza

Udalak Arrasateko Institutoari 517.5000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki du. Eskatu bezala "Bidean" proiekturako izango da dirulaguntza hori. Batxilergoa euskaraz egin nahi duten ikasleek parte hartzen dute proiektu horretan.

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA • 1995/96 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

• LEHENGO EPEA: irailaren 15tik urriaren 16rarte. • BIGARREN EPEA: urriaren 2tik 31rarte.

ARGIBIDEAK

UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza
San Martín Agirre Enparantza, z/g (69 aptdoa.) 20750 BERGARA Tfnoa. 76 13 42/76 13 43

BULEGO ORDUAK

Asteartetik ostiralera, 10etatik 13etara goizez eta 16retatik 20rarte arratsaldez.
Larunbatean berriz, 10etatik 13etara (urritik). Astelehenetan itxita.



Emakumearen batzordea lanean hasteko gertu dago

Urriaren hasieran Emakumearen Batzordea lehen aldiz batzea espero da. Aste-an bilera izan da batzordean parte hartuko duten politiko batzuekin, emakumearen arazo-en inguruan orain arte egin dena azaltzeko. Horrez gain, emakumearen egoera sozio-ekonomikoaren gainean egin den ikerketaren emaitzak banatu zaizkie politikoei. Rosa Mondragon, emakumearen berdintasunerako agentearen esanetan, "ikerketako emaitzak oinarritzat harturik, datozen urteetarako plangintza egitea da asmoa".

Orain arte Ongizate Sailaren barruan aztertu izan dira Emakumearen Kontseilutik zetozen gaiak eta hor-



Emakumearen egoera-sozioekonomikoari buruzko ikerketaren emaitzak kontuan hartuko dira datozen urteei begira.

tik gobernu batzordera pasatzen ziren. Rosa Mondragonen ustez, "batzorde berriaren eraketarekin denbora irabaziko dugu, gaiak gobernu batzordera lehenago pasatu-

ko dira eta".

Batzordea eratu arren, orain arte moduan lanean jarraituko du Egizanek, Emakumearen Asanbladak, Famili eta Gizarte Hezketarako

zentruak eta Ekin Emakume Taldeak osatzen duten Kontseiluak. Talde horiek Batzordearen lehendakariarekin, Isabel Zuazubiskarrekin eta emakumearen berdintasunerako agentearekin batuko dira eta Batzordeari proposamenak egingo dizkiete. Kontseilua hilero bilduko da, baina Batzorde berria zenbatero batuko den zehaztu barik dago oraindik.

Emakumearen Batzordeko lehendakaria HBko Isabel Zuazubiskar zinegotzia da. Horrez gain, honako politikoa hauek osatuko dute: Rafi Romero (PSE-EE), Isabel Gallastegi (EA), Miren Itsaso Garai (EAJ), Joseba Ugalde (EB) eta Antonio Palacios (PP).

FAMILIA ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTROA 95-96ko IKASTAROAK

Goizez, 9.30etatik aurrera:

- Arnasketa eta posturak zuzentzeko teknikak
- Geriatria
- Sukaldaritza
- Eskulanak
- Tapizgintza eta makrameak
- e.a.


Gauetz, 6.30etatik aurrera:

- Marrazki eta margòa
- Unibertsitaterako sarbidea
- Enkuadernazioa
- Larrulana
- Sexualitate ikastaroa
- e.a.

Arratsaldez, 3.30etatik aurrera:

- Brikolagea eta altzari berriztapena
- Puntua eta gantxiloa
- Bolilloak
- Patronaje industrialak
- Psikologia: autoestima
- e.a.

Kurtso hasiera urriaren 2an!



Informazio gehiagorako dei egin:

famili eta gizarte-heziketarako zentrua
Gipuzkoa-Donostia kutzaren gizarte ekintza



Santa Teresa, 12 • Tfnoa: 79 04 59 • ARRASATE



Martxoan inguruan pasatuko dira gaisoak eraikin berrietara.

Bukatzear daude San Juan Ospitalaren zabalkunde lanak

Eraikuntza lanak aurrikusitako epeen barruan egiten ari direnez, urte bukaerarako amaituta egongo dira San Juan Ospitaleko obrak. Bi urtetan zehar hiru eraikin berri jaso dira eta orain ingurua urbanizatzen ari dira. Hala ere martxoan aldera pasatuko dira gaisoak eraikin berrietara, urbanizazioa egindakoan eraikinak hornitu beharko dira eta.

Hiru eraikinetako bat administrazioak beteko du, bestea gaisoendako izango da eta hirugarrena psikogeriatria zerbitzurako, hau da, pertsona nagusiendako. Eraikin gehiago egiteak, hala ere, ez du esan nahi ospitalak gaiso gehiago jasoko duenik. Angel

Agiriano gerentearen berbetan "baliteke gaisoren batzuk hartzea baina kopurua oso txikia izango da, eraikin berriekin gaisoek toki gehiago izan dezaten lortu nahi dugu eta". Gaisoak zerbitzu berrietara pasatuta koan, oraingoak zaharberritzen hasteko asmoa dago.

San Juan Ospitaleko obrak egiteko 2.000 milioi pezeta gastatu dira. Oraindik baieztatu barik dagoen arren, baliteke laugarren eraikin bat egitea psikogeriatria zerbitzurako. Gerentearen esanetan, "gero eta pertsona nagusi gehiago dago eta aurrerantzean lagun horiendako zerbitzuak ugaritu beharko dira".


Lankidetzeta beka

Arrasateko Udalak eta Udalako Ingurugiro Eskolak lankidetzeta beka kaleratu dute. Deialdiaren helburua, beka-duna ingurugiro gaitan ondo prestatu dadin aukera ematea da. Oinarriak Arrasateko Udalako Hezkuntza Sailean jaso daitezke eta eskabideak irailaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira.


Mankomunitatean hirukoak funtzionatu

Mankomunitatearen Eraiketa Batzarra egin zen atzo eta aukeratu beharreko hiru karguak EAJ, PSE-EE eta EAren eskuetan geratu ziren. Lehendakariak, Loitik, 11 boto lortu zituen; lehendakari ordeak, Manu Villarrek, 12 boto eta diruzainak, Esparzak, 9 boto.

Batzarraren hasieran bozketak formularekiko eztabaia da sortu zen, Mankomunitatearen estatutuetan ez da zehazten eta bozketak nola egin behar den, botazio bakarez ala kargo bakoitzarentzat bozketak bana. Azkenean, kargo bakoitzeko botazio bat egitea erabaki zen.



AVICOLA IRAIN



Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90
Ezkie Itsaso - Antzuola




Salburuako zelaietan ospatu zen **Alderdi Eguna** joan zen domekan. Eusko Alderdi Jeltzaleko jarraitzaileen bilgune bihurtu zen Salburua eta arrasatearrak ere bertan izan ziren jai giroan egun pasa egiteko. Eguraldia lagun izan ez arren, primeran pasa zutela jakin izan dugu.



LASO-ARREGI

Marian eta **Mitxel** Andoainen ezkondu ziren uztailearen 8an eta Islas Sheychelesen egon dira ezkonbidaian.



LASO-ARREGI

Juan Valor eta **Ana Alonso** arrasatearrak Arantzazun ezkondu eta ezkonbidaian Mejiko eta Colombian izan



LASO-ARREGI

dira. **Antonio Cancelo** eta **Elena Gomez**, berriz, irailaren 2an ezkondu ziren Dorletako Santutegian eta Holan-


da Belgica aukeratu dute ezkonbidaia igarotzeko. Ezkontza ugari azken hilabeteotan. Guztiei zorianak!

TABERNA ALOKAGAI
 Toki onean eta bezero eginak
 Informaziorako:
79 99 34

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atatak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

Lore
 Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
 Tfnoa: 79 52 50



“La Peña Bakalau” taldekoek ez zuten kale egin Uribarri Erguingo jaietan eta euren instrumentu bereziekin, bonboa falta barik, jakina, giro polita eta bitxia jarri zuten. Saltse-

ro galantak dira arrasatear hauek eta jaietan garbi utzi zuten benetan gustatzen zaiela martxa. Horrelako martxosoekin ez dago asperterik!



Trialsin erakustaldia egon zen zapatuan Uribarri Erguinen. Parte hartzaileen artean Euskadiko, Espainiako eta Munduko trialsin txapeldunak. Ikuskizuna goi mailakoa, ikusleei ahoa zabalik uzteko modukoa, bai horixe!

IZEN PROPIOAK

● **Alejandro Besó Gomez-Aparicio** 30 urteko Gasteiztarra Udaletxeko arkitektu berria da. Sei hilabeterako egin diote kontratua. Alejandrok Madrilen ikasi zuen arkitektura.

● **Jose Aranzabal** 42 urteko arrasaterrak “*Hitza-ro*” euskararen inguruko saioa zuzenduko du ETBn. Saio berriak bi aurkezle izango ditu; **Mikel Irizar** eta **Aintzane Gardoki**. Mikelek “*Astebete*” saioa aurkeztu zuen ATBn eta Aintzane “*Bakarka*”. Programa urriaren 7an hasiko da.

● **Jose Mari Loiti** arrasaterra eta Eusko alderdi Jeltzaleko partaidea Mankomunitateko lehendakari berraukeratu dute datozen lau urteetarako. Lehendakariordea **Manu Villar** eskoriatzarra eta Eusko Alkartasuneko izango da. **Patxi Basauri** ordezkatu du Manu Villarek. Diruzaina **Alvaro Esparza** bergararra eta PSE-EE alderdikoa izango da. Esparzak Jose Luis Irizar ordezkatu du.

OSTATU
Jatetxea

BEREZITASUNAK
Rape-a eta Legatz kokotea

LAGUNARTEKO AFARIAK
Leintz Gatzaga ■ Tfnoa: 71 53 71

Bitxori

ileapaindegia

Errebuealta, 10 behea ARRASATE Tfnoa: 79 27 68

UDAZKENEKO IKASTAROAK



Euskal dantzen ikastaroa

- Lore Gazteak dantza taldearen eskutik.
- 15 urtetik gorakoei zuzenduta.
- Urriaren 20tik Santamasak arte.
- Ostiraletan, 7etatik 8.30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.

Oharra: Bikote mixtoek lehentasuna izango dute.


Argazki ikastaroak

SAKONTZE MAILA

- Urriak 9-10, 16-17-18-19, 23-24-25-26.
- Arratsaldeko 7,15etatik 9,15etara.
- ASA elkartearen lokaletan.
- Matrikula: 3.500 pta (2.000 ikasle eta langabetuentzat).

HASTAPEN MAILA

- Azaroaren 7tik abenduaren 14ra.
- Astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara.
- Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat).



Irrati tailerra (Arrasate Irratian)

- 15 urtetik gorakoei zuzenduta.
- Irailaren 29tik Santamasak arte.
- Ostiraletan, 7etatik 9etara.
- Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat).

IZENEMATEAK:
Gazte Bulegoan
77 00 65
PLAZA MUGATUAK

● *Begoña Falces*

Alzheimer-aren inguruan lanean

Gutxi arte ezjakintasan handia zegoen oroi-mena galtzea dakarren gaisotasunari buruz. Apurka-apurka medikuak gaisotasun "berri" hori ezagutzuz joan ziren eta izena jarri zioten: Alzheimer-a. Gaisotasuna diagnostikatzea lorpen handia izan da, baina aurrerapausu txikiak eman dira. Horietako bat Arrasaten. Alzheimer gaisotasunaz familiartekoren bat dutenendako laguntza taldea sortu zen udaberrian. Begoña Falcesek, anbulatorioko gizarte laguntzaileak, Arrasateko taldea eratzten lagundu zuen.

– Zertarako laguntza taldeak?

– Osakidetzako eta udaletxeetako gizarte laguntzaileok Alzheimer-aren arazoa kalean zegoela eta zerbait egin behar zela konturatu ginen. AFAGIrekin (Alzheimer-a dutenen familiartekoen Gipuzkoako Elkartearekin) jarri ginen harremanetan eta otsailean Deba Garairako hitzaldi sorta antolatu genuen. Hitzaldietan gaisotasunaren inguruko berri eman genuen baina helburua, familiartekoenendako laguntza taldea sortzea zen.

– Nola lortu zenuten taldea biltzea?

– Lehenengo, etxean alzheimer kasuren bat zuten familiartekoenkin jarri ginen harremanetan. Deba Garaian berrogeitabi kasu inguru zeuden, Arrasaten hogeitabost. Talde horretan ez genituen sartu zaharren egoitzetan daudenak eta gaisotasuna guztiz diagnostikatu barik zutenak; beraz alzheimerre dutenak izan gehiago dira. Parte hartzeko interesa zutenekin taldeak eratu ziren; horietako bat Arrasaten, hamabi lagunez osatua.

– Beraz kalean interesa zegoen...

– Interesa baino gehiago, beharra zuen jendeak. Etxean gaisoren bat izanez gero, arazoak berba egiteko beharra sortzen da eta onena arazo berdina dutenekin hitz egitea da.

– Zein helburu du laguntza taldeak?

– Taldea hamabostero batzen da eta partaide bakoitzak gaisoarekin dituen arazoak eta esperientzia kontatzen du. Era horretan batak besteari laguntza ematen dio, akaso batek duen arazoarendako irtenbidea izan dezake beste batek eta. Taldeak zenbait gauzari aurre egiteko balio du.



Alzheimer-aren inguruko informazioa ere ematen da, prozesua zelakoa izaten den jakin dezaten. Gaur egun taldeko gidaritzako profesional batek eramaten du, baina asmoa taldea autonomoa izatea da.

– Gogorra izan behar du gaisotasun hori duen familiarteko bat zaintzea...

– Oso gogorra da, kontua ez da eta gaisoarekin bi ordu egon eta kitto. Gaisotasuna aurrera doan heinean ordu gehiago egon behar duzu bere gainean. Bestalde sentimenduen kontua dago; batzuk kulpa sentimendua izaten dute, batzutan pentsatzen dutelako "ea hiltzen den". Jakina hori ezin zaio arazoa bizi ez duen bati kontatu.

Horrez gain kontuan hartu behar da bizi guztian norberen ondoan egon dena bapatean beste pertsona bat

bihurtzen dela, eta zaila da errealitate berri horri aurre egitea.

– Laguntza taldean sartzeko zer egin behar da?

– Anbulatoriora deitu eta nirekin harremanetan jartzea da onena. Nik daukadan informazio guztia eta taldearen berri emango diet. Nahi izanez gero, udaletxeetako gizarte laguntzaileengana ere jo daiteke eta AFAGIra deitzeko aukera ere badago. Telefonoa: 42 81 84 da.

– Taldea eratzea lortu duzue baina aurrerantzean zer?

– Aproposena gaiso horiendako zentru bat edukitzea litzateke. Era horretan familiartekoen ordu batzuetan gaisoa zentruan uzteko tokia edukiko lukete.

Uste dut bi urte barru lortuko dugula, udaletxeetako gizarte laguntzaileak ahaleginak egiten ari dira eta. Baina ezinbestekoa da familiartekoen eskaera hori egitea, horrela gizarte laguntzaileok presioa egiteko aukera izango dugu.

● **“Aproposena Alzheimer-a dutenendako zentru bat edukitzea litzateke. Uste dut bi urte barru edo lortuko dugula”.**

Tenporak

Haizeak agintzen duenean

Beñardo Kortabarria

Punta puntako teknologia nagusi da meteorologia munduan: aldi berean hango eta hemengo datuak biltzen dituzten ordenagailuak, espazio zabaletik seinalea bidaltzen duten satelliteak, elkarrekin lanean ari diren meteorologi zentroak... Eta hori guztia, ahalik eta iragarpen zehatzenak egiteko. Nekazari eta artzaiek hala ere, eguraldiaren berri jakiteko ez dute mendeetan zehar puntako teknologia horren beharrik izan. Arbasoengandik datorkiena erabili izan dute, tenporei erreparatzea.

Kristau-erlijioan, urtaro bakoitzaren hasiera aldeko hiru egunez (Eguberri aurreko asteko eta Hauste-rre-egunaren, Mendekoste-egunaren eta irailaren 14aren ondorengo asteko asteazken, ostiral eta larunbatez) osatutako aldia. Egun horietako haizea urtaroan nagusitzen delako herri-sinismena dago” diote liburuek garta-denbora edo kuarta-tenpora hitza begiratzerakoan. Nekez aurki daiteke liburuetan informazio gehiago, ia ez da ezer idatzi tenporei buruz eta. Beraz, zailtasun ugari tenporak noiz sortu ziren, non-

dik datozen, nola asmatu ziren, zer esan nahi duten etabar jakiteko. Zorionez, Arantzazuko bakean, Peio Zabalak, fraide eta eguraldian adituak, izan du astirik eta gogorik gai honetan ikertzeko; baita berak jasotako uzta ezjakinen arte-

an banatzeko borondatea ere.

NOIZ IZATEN DIRA?

Tenporen arrastoaren ondoren, elizako liburu eta egutegietan asko ibilitakoa da Peio Zabala. Informazio mardulik ez ei dago gai honi

buruz, baina hemendik apurtxo bat, hortik gehiago, handik beste haritxo bat... gauzak nolabait zehazteko moduan dago orain. Bide horretan, derrigorrezkoa da denboran atzera egitea, IV. mendera arte, orduan atera



Oraingo asteburuan izango dira udazkeneko tenporak.

ziren eta elizaren lehen liburuak. "Hor agertzen ziren elizaren jaiak. Oso gutxi ziren, Pazkoa, Gabonak eta beste martiriren bat. Kalbario mendian gurutzea aurkitu zutela eta, gurutzearen festa jarri zuten orduan eta tenporei dagokienez horrek garrantzia du, iraileko tenporak festa horien ondoren jarri ziren eta, 14aren ostean datozen asteazken, ostiral eta larunbatean. Uztaren alde otoitz egiteko egunak ziren".

Tenporen datak jartzeko urtaroen inguruko ospakizun horiek jarri ei zituzten. Elizak bere egutegia du, eta horren arabera hasieran bi tenpora finkatu zituela dio Arantzazuko fraideak. "Udaberri partean judutarrengandik datorren ospakizunik handiena dago, Pazkoa. Elizak beti ospatuko du Pazkoa ilargi betearekin, eta horregatik mugitzen den jaia da. Udaberriko ilargi bete noiz da? eta Pazkoa hortxe jarriko du. Pazkoa hor baldin bada, Garizuma 40 egun aurretik, data konkretu batean. Lehenengo tenporak hor finkatu ziren, Garizumako lehen astean. Bigarrenak noiz? Elizak garai hortan Pazkoa pasatu arte beste ospakizunik onartzen ez zuenek, gero jarri zituen, ekainaren hasiera inguruan gehienetan. Horrek biak mugikorrek dira.

Udazkenekoak finkatzeko, irailaren 14a gurutzea aurkitu zuten eguna izanik, libratu beharra zegoen. Orduan jaia pasa eta gero ezarri ziren. Neguan berdin, Gabonen aurreko astea, hor ospakizun handiak izaten dira eta".

Artaiek, baseritarrek eta eguraldiari sarri begiratzen diotenen ez lirateke, datei dagokienez, erabat ados egongo Peio Zabalarekin. Hauen ustez urtaroen aurretik izaten dira tenporak: Gabonak aurretik, San Miguel aurretik, San Juan



Pello Zabala, fraide eta eguraldian aditua.

aurretik eta San Jose aurretik. Erdizka eman beharko zaie arrazoia artzai eta abarrei. Izan ere, negukoetan beti dute arrazoia, udazkenekoetan gehienetan bat dator eta, udakoetan oso gutxitan, eta udaberrikoetan batzutan bakarrik.

HAIZEA NAGUSI

Datak baino garrantzi

handiagoa du tenporen balio-garritasunak. Hau da, zer erakusten dute? "Eguraldiak adierazgarri ugari du -euria, presioa, tenperatura, lainoak...-dio Peio Zabalak. Urteetan begira egon ondoren, ondorio bat daukat argi, tenporetan haizea dela kontuan hartu beharreko bakarra, arbasoek esaten zuten bezala. Zientzia aldetik ez du

azalpenik, baina haizearen kontua normalean betetzen da".

Haizeak ei du garrantzia. Hala ere, tenporetan makina bat aldaketa gerta daiteke asteazkenetik larunbatera bitartean. Ondorioz, zerekin geratu? "Tenporetan oso gutxitan geratzen da haizea indarrez markatua, horrek eragin segurua izango luke eta ondorengo hiru hilabeteetan. Larunbat gauean geratzen den haizea nagusi izaten da normalean, baina bada go tranpatxo bat ere: ostiralak askotan esan duenaren kontrakoa egiten du. Ostiralak Euskal Herrian oso tradizio kurioa du, aldrebes fama: ilbeheran baldin bagaude ostiralean ilgorako lanak egin daitezke, ekaitz handienak ostiraletan gertatu ei dira eta bada esaera zaharrik ere, ostiraleko trumoiak bederatziturrena... eta askotan eguraldi aldaketa ostiraletan hasten da".

MADE IN EUSKAL HERRIA

Ostiralak Euskal Herrian tradizio berezia duen bezala, tenporak bakarrik hemen, eta ez beste inon, dira ezagunak. Arraroa da, kristautasuna munduan zehar hedatu zen eta, nekazariez betetako munduan hain zuzen. Beraz, pentsatzekoa da beste lurraldeetako nekazari eta artzaiek ere erreparatuko ziotela eguraldiari, baina antza denez, ez ziren gai izan tenporen balioaz ohartzeko.

Sasoi batean tenporek orain baino garrantzi handiagoa izan zuten. Gaur egun, nekazari gehienak kaletar edo baserriko kaletar bihurtuta, zapatak edo zapatilak jantzi behar dituen jakin aldera, jendea bihar euria egingo duen edo ez axola zaio. Eta tenporek ez dute halakorik kontatzen, baina oraindik hor daude. Nahi duenak kontuan har ditzala!

Udazken honetan zer?

Udazkeneko tenporak beteko dira asteburu honetan. Eguraldiari batere kasurik egin badiozue, konturatuko zineten asteazkenean ipar-mendebalak agindu zuela eta zeruan lainoak izan zirela nagusi. Gaurko berririk ezin eduki, hauek aurrez idatzitako kontuak dira eta. Hala ere, bazirudien haizea iparrerako aldatzeko zegoela eta ondorioz nolabait garbituko zituela bazterrak. Bihar zer egingo duen? Auskalo! baina udara nola joan den ikusita, udazken epel eta samur baten aldeko apustua egin behar. Besterik ez bada, komenigarritasunaz. Ea udan heltzerik izan ez duten fruituei horretarako aukera ematen dien udazkenak!

Fertxu Rodriguezek Arrate taldean jokatu du

Fertxu Rodriguez esku-balo jokalaria erronka berri bati ekingo dio Eibarko Arrate taldean. 21 urteko arrasatear pibot horrek Juanma Lopezen gidaritzapenean B mailako ohorezko ligan jokatu du aurtengo denboraldian. Fertxu bere betiko taldetik Eibarrera joan da gehiago ikasteko asmoz.

- Zer bultzatuta joan zara Arratera?


- Arrasaten baino gehiago ikasi behar dudala uste dut. Arratek maila altuagoan jokatzen du, jokalaria gehienak ohorezko ligan ibilitakoak dira eta entrenatzaileak esperientzia handikoak. Horrek guztiak bultzatuta, joatea erabaki dut.

- Arrasateko ordezkariak jarri zizuten eragozpenik?

- Hasieran bai. Neurri batean ulertzekoa da, Arrasateko zuzendariak taldeari jarraikortasuna eta sendotasuna emateko iazko jokalariekin jarraitzea gura zuten. Presidentearekin izan nintzen azken aldian nire asmoa azaldu nion eta joateko baimena eman zidan.

- Arrasate eta Arrate taldeen artean ze desberdintasun dago?

- Aldaketa handia dago,



Fertxuk B mailako Ohorezko Ligan jokatu du Arraten.

Arratek B mailako ohorezko ligan jokatzen du, Arrasate baino maila handiagoan, eta jauzi hori asko igertzen da. Entrenatzeko erritmoa ere erabat desberdina da, hemen arratsaldetan entrenatzen gauen Arraten goiz eta arratsalde, 5-6 bat ordu egunero.

- Zure burua titular ikusten duzu?

- Une honetan ez. Gainera iaz pibot postuan ibili zen jokalaria hor dago eta hasie-

ran berak jokatzea normala da, baina denboraldia aurrera doan neurrian eta entrenamendutan fin banabil, jokatze konfidantza dut.

- Arrasateko taldean titularra zinen, Arraten berriz ordezkaria egon beharra?

- Ordezkoa izatea beti da gogorra eta are eta gehiago titular izan ondoren. Baina mailaz aldatuz gero, ordezkaria aulkian egotea ez da

harritzekoa eta hori gertatu zait.

- Zein da zure helburua, ohorezko ligan jokatzea?

- Nire helburua ikasi, talde berrian titulartasuna lortu eta gustora ibiltzea da. Ohorezko ligan jokatze aukera izango banu aprobetxatuko nuke, baina ez nago itxututa maila horretan jokatze.

- Nola moldatu zinen talde berrira?

- Arrasate eta Arrate ez dira sekula ondo konpondu eta hasieran beldurra nuen, baina jendea ondo portatu da eta ez dut inolako arazorik izan. Giroa ez da Arrasatekoa, hemen giro berezia dago, jatorra benetan.

- Zure taldekide ohiak nola ikusten dituzu?

- Denboraldian ondo ibiltzeko taldea badago eta urtebeteko esperientzia ere kontuan hartzekoa da. Bi fitxaketa berri egin dituzte eta taldeari sendotasuna emateko balioak izango dira.

- Entrenatzaile berria zer iruditzen zaizu?

- Taldeak apostu handia egin du, ez entrenatzaile emakumea izateagatik esperientziarik ez duelako baizik; beraz, jokalariek asko lagundu beharko diote Rosari.

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

OLIVEROS DOKTOREA
PSIKIATRA

Irailetik aurrera kontsulta beste
toki batera pasatuko da.

Helbide berria:
CONSULTORIO MEDICO OLARTE
Olarre kalea, 43 behea
Tfnoak: 79 81 00 / 79 81 11
Arrasate

Derbi interesgarria Iturripen: Arrasate eta Askatuak

Urbina-Maltzaga saskibaloi taldeak Askatuak taldearen kontra jokatu du denboraldiko lehen neurketa Iturripen. Zapatuan arratsaldeko 6etan arrasatearrek eta donostiarrek hasiera emango diote 95-96 denboraldiari. Samaniego entrenatzaileak jokalarizuztiak gertu izango ditu eta Clinton Holtz amerikarra ere hasierako boskotean kantxaratuko da. 2.12 altuerako pibot amerikarrak maila ona erakutsi du aurrendenboraldian jokatuako bi neurketetan; beraz, taldeko jokua sendotzeko jokalarierabakiorra bihur daiteke. Azken aldian horrenbeste esames eman duen Iñaki Gomez lanean ikusteko aukera egongo da eta baita Juan Pedro Cazorla ere. Cazorla baseak zenbait neurketa Taugres Basconiarekin jokatu ditu, baina hemendik aurrera Arrasateko taldean egongo da.

Mondra garaipenaren bila buru-belarri

Gernika izango da 3. mailako Mondra taldearen arerioa domekan arratsaldeko 5etan Atxabalpen. Hiru jardunaldi jokatu direnean Nezda Zivojeciven mutilek ez dute garaipenik lortu, puntu barik 18. tokian daude. Gernikaren kontrako partidua irabaztea garrantzitsua izango da jokatzen du.



Urbina-Maltzagak zer egiteko gauza den erakutsi beharko du larunbatean.

lariek eta jarraitzaileek konfidantza galdu ez dezaten. Denboraldia hasi baino ez da egin, baina jokalariek ezin dute lo hartu gerora begira galtzen ari diren puntuak erabakiorrak izan daitezke eta. Mondra taldean Haritz Zabaletak ezingo du jokatu Santurtziren kontra txartel gorria ikusi zuelako. Gainontzekoak sasoi-sasoian daude eta Juan Luis Aranburuzabalak ere minutu batzuk joka ditzake. Gernika 4 punturekin sailkapeneko 11. tokian dago.

Bi fitxaketa berri eskubaloian

Saul Gonzalez eta Iñigo Lopez de Abetxuko dira Arrasate eskubaloi taldeko fitxaketa berriak. Saulek atezain postuan jokatzen du eta Irungo Bidasoa taldeko dator. Iñigo gasteiztarra oso trebea da eta ezkeraz

jokatzen du. Bestalde lehen territorialetik lehen mailara beste bi jokalarik igo dute, Fran Gimenez eta Eneko Arrietak. Josu Arabaolazak lehen terroarialean jokatuko du, lehen mailakoekin entrenatzeko arazoak dituelako. Azken fitxaketa hauekin osatuta geratu da lehen mailako eskubaloi taldean.

Joan zen domekan Oñatiko 18. eskubaloi txapelketa irabazi eta gero, eskubaloikoek aurrendenboraldiko beste bi neurketa jokatuko dituzte zapatuan Aretxabaletako kiroldegian. Lehen territorialekoek Bergararen kontra neurtuko dituzte indarrak arratsaldeko 6etan eta 7.30etan lehen mailako Arrasate eta Abetxuko izango dira lehian. Hauentzat denboraldi ofiziala urriaren 14ean hasiko da eta 12an aurkezpen ofiziala egingo dute Iturripen.

Zaldibar txapelketan hasteko gertu

Maritxu kajoi biharamunean Zaldibar futbito txapelketa jarriko da abian. Aurten ere partaidetza handia espero dute antolatzaileek eta horregatik hasi dira txapelketako arau berriak zehazten. Irailaren 26 eta 27an, datorren astearte eta asteazkenean, izena emateko aukera izango dute partehartzaileek Monterronen arratsaldeko 7etatik 8.15etara.

Santamas pilota txapelketa Iturripen

Eskuz banakako Santamas txapelketa hasiko da datorren ostiralean Iturripen arratsaldeko 6etatik aurrera. Alebinetan Ugarte-Belastegi arituko dira elkarren kontra. Infantiletan Nafarratek eta Dominguez II.ak neurtuko dituzte indarrak. Kadetetan bi neurketa ikusgai: Belategi-Lazkano eta Aroztegi-Dominguez. Jubeniletan Lizarralderen aurkaria Mancebo izango da eta Miranda-rena Etxebeste.

Zikloturisten irteera

Arrasateko zikloturistek domekeroko irteera egingo dute. Ibilbideak 87 kilometro izango ditu eta goizeko 9etan irtengo dute Monterrondik.



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraukorrak



ORDUA DA!



IKASTXIP programa dagoeneko Euskaltegia da. Azken hamar urteetan Psikolinguistika eta Glotodidaktika sailetan hausnarketa eta ikerketa sakonen ondorioa da DIDAKTIKER entresak euskara azkarrago eta erosoago ikasteko, sortu berria duen metodoa. Ez dago informatika jakin beharrik, 10 minutu nahikoak dira Didaktikerrek eskaintzen dituen programetan murgil zaitezten.



EZ GALDU EUSKARAREN TRENA!

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze
- Ikastaro bereziak

Matrikula epea: irailaren 4tik 13ra arte

Plaza mugatuak.

Beka sistema daukagu!



UDAL EUSKALTEGIA • ARRASATEKO UDAIA

Informazio gehiagorako:

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Tfnoa: 79 70 77 • 79 77 88


Bittor Iñarra

Indonesia: hondartzak bakarrik?

Hau berau izan zen Indonesian urtebeterako lanpostua lortu nuenean etorri zitzaidan galderetariko bat. Egiaesan, ez nintzen Indonesia Mapa Mundi batean zehazki kokatzeko gai ere, baina irla tropikal paradisuarrak etortzen zitzaizkidan burura.

Dagoeneko bost hila-bete daramatzat Indonesian. Denbora honetan makina bat esperientzia berri, pertsonai bitxi eta leku zoragarri bizi, ezagutu eta bisitatu ditut; baita, Arrasaten nengoela, gogora etortzen zitzaizkidan irla tropikal paradisiako haiek ere. Baina, nire kontuen berri ondorengo asteetan izango duzue, hala nahi izanez gero. Gaurkoan, abuztuan bisitatu bat egin didaten lagun batzuen iritziak eskuratu nahi dizkizuet. Guztira hamar lagun izan dira: Arrasateko sei, hiru bergarar eta plaentxiarra beste. Nahiz eta elkarrekin ez, guztira bost irla desberdinetan izan dira hilabete baten zehar: Sumatra, Jawa, Bali, Gili eta Sulawesti. Oporretan eta denbora laburrean jasotako inpresioak dira beraz, baina ez horregatik oinarri gabekoak eta okerrak.

Euskal Herriatik hain urrun dagoen herrialde batera etorri z gero denak desberdina



dirudi: klima, lurra, landareak, zuhaitzak, fruituak, animaliak, jakiak, pertsonak, aurpegiak, azal koloreak, hizkuntzak, kulturak, erlijioak, bizitzeko erak eta filosofiak... sentsazio berri asko dira jaso daitezkeenak herrialde hau zapaltzen den lehen unetik.

Igertzen den lehenetariko bat beroa da: "Aireportuko ateak zabaldu bezain pronto somatzen duzu lehen ziztada, bertako berotasun umel honek eragiten dizuna hain zuzen" dio Romanek. Hala ere oporren bukaeran Arantxi honela mintzatzen zen: "Irletan ibiliz gero, ez da kapitaleko etengabeko bero hori apenas inon aurkitzen".

Hemen arrotzak gu gara, bitxiak, azal kolore desberdina

duinak eta "leku batzutan turismotik bizi dira, baina beste batzutan zuriak bitxo arraroak dira" aipatzen dute Arantxi eta Aitorrek. Josu eta Amaiak hala diote "batzutan agobianteak suertatzen dira, baina inolaz ere Marokoko agobio bortxatzailearen adinakoak, agobio sinpatiko eta atsegina baizik". Beti agurtzen edo bere irrifarre eta galderei erantzuten egon behar duzu berehala zuregana hurbiltzen baitira. Honi "papismo" izena jarri genion, Aita Santua bere papamobilean ibiltzen den bezala ibiltzen ginen eta.


Baina gauzarik harrigarriena beraien arteko ezberdintasuna litzateke: orografia, landare-animaliak, kultura, ohitura, erlijioa... "ohian

ilun eta itxietatik zabalgunetara, superpoblazio guneak edota arrozalak tartean daudela, hondartzak, sumendiak eta korallak ahaztu gabe" edo "oso aberatsa arte, kultura, dantzak... zinezgaitza hainbeste gauza ezberdin batuta egotea" komentatzen dute Roman eta Aitorrek. Arantxi berriz "Jakarta kosmopolita eta neoi argiz jantzitakoa hor dago, baina baita hirian Jayako biz-

tanleak, brontze aroan edo bizi direnak oraindik". Hala ere "desberdintasun kontzientzia hau asumituta dago, egunero elkarbizitzan inongo gatazkarik somatuz, arrotasuna baizik" azpimarkatzen du Jaimek. Bukaezina izango zitzaidan denen iritziak aipatzea baina izenburuko galderari nolabait erantzuna emateko hemen dauzkagu Ikerne, Mikel eta Aitorren iritziak: "edertasun ez turistiko asko dago Indonesian", "lur aberatsa, jende atsegina, baina kexa handirik gabekoa, usain desatseginak... hau dena eta gehiago: Indonesia", "Espero ez nuen gauza zoragarri asko aurkitu ditut hemen", "Ezinezkoa dena hilabete batean ezagutzea, beharbada hurrengo batean, denborak esango du".

Plus Ultra
taberna


Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Gloria Martinez Larrañaga

Margolaritzarekin maiteminduta

Udazkeneko koloreak oso gustoko dituela aipatzen du 69 urteko margolari arrasatear honek, eta irailaren 22tik urriaren 8ra Harresi Aretoan egingo duen erakusketan ikusi ahal izango da hori. Duela 24 urte ekin zion margotzeari eta oraindik ere margotzeko gogoz jarraitzen du.

— Noiz hasi zinen pintatzen?

— 1971an Zerrajerako langilea nintzela. Garai hartan, Zerrajerak pintura gela bat zabaldu zuen langileentzat. Javier Egia etortzen zen klaseak ematera eta han ibili nintzen bi urtetan.

— Orduan konturatu zinen margolaritza gustatzen zitzazula eta bazenuela horretarako trebetasuna?

— Betidanik gustatu zait margotzea, baina orduan arte ez nuen praktikatzeko aukerarik izan. Orduan ez zegoen akademia eta horrelakorik! Gainera, ezkondu egin nintzen eta umeekin banuen nahikoa lan. Umeak hasi zirenean aukera hau suertatu zitzaidan eta orduan ekin nion serioago. Dena dela aldika utzi izan diot margotzeari, begiak ez dauzkate oso ondo eta. Hala ere beti nengoen pintzela berriz hartzeko irrikitan...

— Harresi Aretoan oleoak besterik ez dituzu erakutsiko. Ez duzu beste teknirik erabiltzen?

— Gehien bat oleoak egiten ditut. Begiekin arazoak izaten hasi nintzenean akuarelari ekin nion eta badauzkat akuarelaz egindako koadro politikak, baina gehienak oleoak dira eta horiexek erakutsiko ditut: guztira 25.



— Erakutsi ala saldu ere bai?

— Erakutsi eta saldu. Batzuk niretako gordeta daukat eta horiek ez ditut salduko, baina gainontzekoak bai. Aurrez ere egin ditut beste erakusketa batzuk Gasteiz eta beste leku batzuetan eta saldu izan ditut koadroak. Erakusketa hau Arrasaten egiten dudana lehena izango da.

— Herrian margolari on asko dago. Arrasatearren iritziazen beldur zara?

— Ba egia esan badaukat kezka hori. Orain arte

kanpoan egin ditut erakusketak eta oso desberdina da: kanpoan ez naute ezagutzen eta ez bazaie gustatzen... hor konpon! Baina Arrasaten bertan jartzea... ez dakit, beldur pixka bat ematen dit.

— Margotzen dituzun paisaiak zuk asmatutakoak ala inguruak dira?

— Euskal Herriko mendiak etabar margotzen ditut. Arrasate inguruak, Aramaiokoak...

Bestalde, paisaiak ezezik, erretratuak, lorak eta beste gauza batzuk margotzen ditut ere.

— Eguneko zein ordutan margotzen duzu?

— Goizetan margotzen dut eta horregatik makina bat lapiko erre zait. Margotzen hasi eta lapikoa sutan daukadala ahazten zait; gero usaiagatik konturatzen naiz! Bestela Benidormen denboraldi luzeak egiten ditut eta han asko margotzen dut. Senarrak margotzera bidaltzen nau berak etxeko gauzak egiten dituen bitartean. Eguzkia hartzea edo buelta bat ematera joatea baino, nahiago izaten dut lasai lasai etxean margotzen geratzea.

— Beraz, senarra izango duzu kritiko zorrotzena?

— Bai. Koadroaren aurrealdean jarri eta bere iritzia ematen dit. Asko eskertzen dut hori eta azkenean, bere kritikei kasu egin eta gauza asko aldatzen ditut. Berak ez aldatzeko esaten dit baina azkenean kasu egiten diot.

— Erraz saltzen dira koadroak?

— Ez da erraza eta hasi berriak garenontzat zailagoa. Beno, horretarako daude erakusketak eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

— Zer da zailena margotzeko?

— Niri itsasoko aparra margotzea kosta egiten zait baina koadro bakoitzak, sinplea iruditu arren, bere zailtasuna duela uste dut. Dena dela, ez dakit zergatik baina nik berehala hartzen diot eskua edozer gauzari.

— Guztien artean, zein margolari duzu gustokoena?

— Cezanne margolaria- ren liburu asko izan ditut eta hori da gehien gustatzen zaidana.

.....
“Goizetan margotzen dut: margotzen hasi eta lapikoa sutan daukadala ahazten zait; gero usaiagatik konturatzen naiz!”

“Nerabeak eta Aisialdirako Hezitzaileak” tailerra

Prebentzio eta Gazteria Udal Zerbitzuek “Nerabeak eta Aisialdirako Hezitzaileak” osasun heziketari buruzko tailerra antolatu dute. Tailer honek nerabeekin lan egiten duten zenbait begirale eta dinamizatzaileen kezkei erantzutea du helburu eta bertan, neraberoaren eboluzioa, heldu eta hezitzaileen arteko harremanak, komunikazioa, autoestima eta kasu praktikoak aztertuko dira.

Tailerraren helburu zehatzak

- Neraberoaren eboluzioa aztertzea, berezko ezaugarriak diren prozesua balitz bezela.
- Ematen diren aldaketak, prozesuak, gertaerak... eta baita nerabeen eta helduen hezitzaileen arteko harremanak nola bizi dituzten hausnartzea.
- Bizipenetan eta hezikuntza jarduerako hainbat gatazka eta komunikazio arazoetan, harreman horiek zein eragina duten zehaztea.
- Proposamen eta ideiak



Arrasateko aisialdi taldeei zuzenduta dago tailerra.

bilatzea bizipen negatibok objektibatzeko, komunikazioa hobetzeko eta heldutasun, autoestima eta autonomia maila handiagoak lortzen laguntzeko.

Tailer hauen antolaketan, eskaria zegoela ikusita egin zuen Udalak Arrasateko Aisialdi talde guztiekin bilera bat egin ondoren. Bilera horretara Txatxilipurdi, Orkatz Skaut taldea,

Galtzagorri taldea, Giza Izpi Alai taldea, Santamainako ludotekaria eta liburuzaina, Prebentzio teknikaria eta Gazteria teknikaria hurbildu ziren.

Tailerra urriaren 27an eta 28an izango da eta zortzi orduko iraupena izango du. Ostiralean arratsaldeko 6etatik 9etara eta larunbatean goizeko 9.30etatik 2.30etara burutuko da.

LABURRAK

Unibertsitatera joateko autobusak

“Aixola” ikasle elkarteak Donostia eta Bilbora egunero joan eta etortzeko autobusak antolatu ditu. Autobusak goizeko 6.30etan eta 7.20etan eta eguerdiko ordu batean aterako dira egunero ohiko geltokietatik eta itzulera ordu batean, ordu bietan, arratsaldeko 6etan eta 8etan izango da.

Autobus kuota hileko 12.000 ptakoa da bai Donostiara eta bai Bilbora joateko. Izena emateko Gazte Bulegora jo eta bi argazki eta 500 pta eraman.

Argazki lehiaketa

Zabalik jarraitzen du Gazte Zerbitzuak, Lurrats eta ASA taldeek antolatutako “Gazteok Bizikletan” VI. Argazki Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Gogoratu gaia “Gazteok Bizikletan” dela eta zuri-beltzeko nahiz koloreko argazkiak aurkeztu daitezkeela. Bi kategoria bereizten dira: 14-18 urtera bitartekoa bata eta 19-35erakoa bestea. Lanak aurkezteko epea urriaren 11an amaitzen da.



LODITASUN ETA BARIZEAK

KIRURGIA ESTETIKOA


- Liposukzioa eta lipoeskultura
- Abdomen murrizketa
- Bularren haunditze eta txikipena
- Begietako poltsak
- Sudurraren zuzenketa

Aginaga (1.806) eta Esteban (6.180) Doktoreak

MIREN GARAI ESTETIKA ZENTROA

Zarugalde Kalea, 23-2 ezk. Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE
Enparantza Klinika-Gasteiz Erreferentzia: 376/95

PRIMERA ACTUACION OFICIAL DEL ORFEON DONOSTIARRA



1896ko uztailaren 4tik 7ra bitartean Arrasaten. Gipuzkoako agintari asko etorri zen gure herrira. Ospakizun horren helburua Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzantza indartu eta bultzatzea zen, "Euskal Herria- Revista Bascongada"ren 1896ko uztailaren 10eko alean jartzen zuenez.

Ospakizun hartan Lorejokoak egin ziren, beste ekintza askoren artean, eta horietan izan zen emanaldi batekoa da erretratu hau. 1896ko uztailaren 7an, ospakizunen azken egunean, Donostiako Orfeoiaren saioa izan zen. Herriko

plazan kantatu zuen, garai hartako talde txikiak, argazkian ageri den bezala, oholtza baten gainean, borobilean jarrita eta Udaletxeari bizkarra emanda.

San Juan Parrokiaren hormaren kontra egurrez egindako egitura batekin jarri zen agintariendako lekua.

Erretratuan ikus daitekeen moduan, jendetza handia batu zen Orfeoia entzutera. Orfeoiaren historian abesbatza hori 1897ko urtarrilean sortu zela esaten den arren, aurrez ere eman zuten kontzerturik, 96ko

uztailean Arrasaten. Talde txikia zen ordukoa, denak gizonekoak, geroago egin zen mistoa-eta.

Plazan eskaini zuten saioan entzuleen txalo ugari jaso zuten. Ondoren, eta gaueko orduetan, Otorako Bainuetxera joan ziren abeslariok, bertan zeuden diputatuentzat kantatzera. Ume eder bat, Goizeko izarra, Boga-boga, Ilunabarra, "koro sueko" batzuk euskaraz, eta Gernikako Arbola kantatu zituzten. Saioaren amaieran Jose Zapiain eta Pedro Mari Otaño bertsolariak ere parte hartu zuten.

ipuzkoako Diputazioak antolatuta, Euskal Jai, Fiestas Euskaras izenez ezagutzen zena egin zen

HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

- Ordenagailu eta softwarea
- Ploteatze eta eskaneatze zerbitzu berria
- Eta orain **INFORMATIKA IKASTAROAK**

INFORMATICA ALTO DEBA
Uribarri Etorbidea, 22 • Tfnoa: 79 64 74 ARRASATE

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

LABURRAK

Goikobalu Txiki berriro entsaiotan

Irailaren 23an Goikobalu Txikiko entsaioak hasiko dira Anuska Ezkurraren zuzendaritzapean. Entsaioak larunbatero izango dira San Franzisko Xabier ikastolako aretoan arratsaldeko 4etan.

Deialdia orain arte abestu dutenentzat eta abesten hasi nahi dutenentzat luzatzen da. Gogoratu bakarrik 12tik 17 urtera bitarteko gaztetxoek parte hartu ahal dutela abesbatzan.

Liburuaren aurkezpena

Urriaren 3an arratsaldeko 7etan eta Monterronen, AEDK "Arrasate 94 lehiaketak-Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa" liburuaren aurkezpena egingo du. Liburu honek joan den urteko lehiaketan saritutako ipuin, poesia, bertso-paper, bideo, diapositiba, argazki, komiki eta itzulpenak irakurri eta ikusi ahal izango dira.

Aurkezpena egin eta liburuaren iritzia azaltzeko Kike Amunarriz, ETBko aurkezlea, izango da.

Z E R N A H I A G O ?

Asier Oroiz

Eskualdeko Ospitaleko telefonista

- Zenbat dei jasotzen duzu egunean? 50 edo 60.
- Gizonezkoek ala emakumezkoek deitzen dute gehiago? Emakumezkoek gehiago.
- Zein kontsulta dago gainezka? Ginekologia.
- Suertatu zaizu larrialdiren bat ikustea? Bai, Gurutze Gorrian egin nuen soldaduzka eta. Bestalde, zaintzaile ere ibiltzen naiz eta kirofanoetan egotea tokatu zait.
- Mediku izango zinateke? Ez, ardura gehiegi da.
- Zergatik ibiltzen zarete zuekoekin? Garbitasunagatik.
- Bata txuriak ala berdeak: zeintzu nahiago? Txuriak.
- Egunean zehar zenbatetan joaten zara ospitaleko kafetegira? Egunean behin.
- Zer hartzen duzu? Tortila pintxo bat eta naranja kas bat.
- Hartu duzu hemen kutsatutako gaixotasunik? Ez.
- Hemendik irtetzen zarenean zer egiten duzu? Etxera joan, bazkaldu eta siesta bota.
- Egon zara inoiz ingresatuta? Ez, oraindik ez.
- Instrumentorik jotzen duzu? Ez.
- Fruta bat? Platanoa.
- Maritxurako prest? Bai eta gogoz.
- Errespetatzen da hemen erretzeko debekua? Bai.
- Kaltzontzilo luzeak ala motzak? Luzeak.
- Koloniarik erabiltzen duzu? Ez.
- Zapatak ala zapatilak? Zapatilak.
- Ze markakoak? "Adidas".
- Zerk ematen dizu inbidia? Lanpostu finkoa daukatenek.
- Gezurrik esan didazu? Ez!



C A M B R I D G E

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



University of Cambridge
Local Examinations Syndicate

MATRIKULAK:

IRAILAREN 25tik URRIAREN 5era

AZTERKETAK ETA DATAK

- F.C.E. (First Certificate English)Abenduak 12
- C.A.E. (Cambridge Advanced English)Abenduak 14
- C.P.E. (Cambridge Proficiency English)Abenduak 13

Azterketa "Eibar" Arma Eskolan izango da.

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

Arrasate: PARLANCE	77 06 83
CIM-AHIZKE	79 01 32

Bergara: ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH	76 03 53
Durango: COMPUBIT ENGLISH INSTITUTE	620 20 20
Eibar: ANGLO-AMERICAN	10 64 57
INTERIDIOMAS	12 10 03
LINK SCHOOL OF ENGLISH	10 39 59
UKITZE	70 25 59
Elgoibar: KEY ACADEMIA DE INGLES	74 30 44
KENSINGTON SCHOOL OF ENGLISH	74 02 36
Ondarroa: HOWDY ACADEMY	613 43 26
Oñati: A & M SCHOOL OF ENGLISH	71 61 37
CIM-AHIZKE	71 60 00

Cambridge Examinations Centre • Es-438

Denborapasak

• ESAERA •

*“Goraka goazela gera
gaitezke; oso nekez,
aldiz, beheraka
goazenean”.*

NAPOLEON

• JEROGLIFIKOA •

54

ETENAREN	ARTZURTA	ETENAREN	OTZORAN	OTZORAN	MAIATZA	GIROIA
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Gipuzkoako herri bat.

• GURUTZEGRAMA •

J. B. AGORRIA

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			
11			12			
13		14			15	
16				17		
18				19		

Horizontalak 1. Bidaiak egin. 8. Azkarra, atleta pisu jautilaria. 9. Jainko gerlari eskandinaviarra. 10. Ahuntzaren arra. 11. Aluminioa. 12. Bikote. 13. Greziako hiria. 16. Zerbaiti ezeta eman. 17. Harremana adierazten duen atzizkia. 18. Zein pertsona. 19. Unain hitz elkartuetan.

Bertikalak 1. Elkartasun. 2. Ezelako. 3. Errepublikatuz, dardaraz. 4. Sexu maskulinoa duen animalia. 5. Galdetu. 6. Nafarroako udalerrria. 7. Gipuzkoako mendia 1.346 m. 12. Musika-eskalko 1. nota. 14. Lortu aditzaren infinitiboa. 15. (Ald.) UDAZKENaren erdian.

• HOROSKOPOA •

Aries Jan eta jan, munduko lodiena bihurtuko zara.

Taurus Ur txikitan itotzen zara. Lasai zaitez.

Gemini Giro ona bilatzeko kalera irten behar duzu, ez etxean geratu.

Cancer Zein bizitza metodikoa daramazun. Gustoko duzu?

Leo Ez zaitez fida zeure buruaz.

Virgo Ez duzu esandako hitza bete. Beti berdin.

Libra Tabernan ohean baino ordu gehiago pasatzen dituzu.

Scorpio Itxura horrekin Almodovarren pelikula bateko protagonista izan zaitezke.

Sagitaris Zeintzuk dira bizitzan dituzun helburuak? Zein onak!!

Capricorn Gorri-gorri jartzen zara ezagunen batek agurtzen zaituenean.

Aquarius Umorea falta zaizula eta larri zaude baina orain konturatu zara?

Piscis Ahal den artean, itxaropen gorde beharko duzu.

Otxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codornis

Badator Mondrasport!

Kirolezale amorratu zaretenok Mondrasport saioa ikusi ahal izango duzue pantailan urriaren 2tik aurrera. Dena dela, aurtengoa berrituta dator bai aurkezle eta baita edukari dagokionez ere. Aurkezleak Esti Loiti, "Titu", eta Itxaro Zubillaga izango dira. Estik aurkeztu zuen lehen ere Mondrasport saioa eta jadanik ondo ezagutuko duzue eta Itxaro ikusiko zenuten "Mondrago!" saioan.

Edukari dagokionez, oraingo saioak kirol kategoria gehiago jorratuko ditu eta horregatik, iraupen luzeagoa izango du programak. Gainera, saio bakoitzera gonbidatu desberdinak etorriko dira. Ez ahaztu, urriaren 2an 9.30etan Mondrasport berria izango duzue!



• KOMIKIA •



Sagu-Zar

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Bidaiatu. 8. Anartz. Salontika. 16. Uko. 17. Dezi. 18. Nor. 19. Unan.
Bertikalak: 1. Batasun. 2. Inolako. 3. Dar. 4. Ar. 5. Ilandu. 6. Azkolen. 7. Urtain. 12. Do. 14. Lor. 15. Kza. Astasu.

Etxebizitzak

- **Donostian pisua osatzeko neska bat behar da.** Tfnoa: 76 24 00.
- **Lagun bat behar da pisua osatzeko.** Tfnoa: 74 00 37. Ainhoa.
- **Bilbon pisu bila baldin bazabiltza,** guk lagun batendako tokia daukagu. Tfnoa: 79 81 96.
- **Urritik aurrera sukaldea erabiltzeko aukeraz logela bat alokatzen da.** Tfnoa: 79 01 20.
- **Pertsona bat edo bi behar dira pisua osatzeko.** Dei egin 79 25 98 tfnora.
- **Bi ohedun gela batalokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Lokal komertziala alokatzen da.** 60 m² eta prezio onean. Tfnoa: 79 40 00. Gauetan deitu.
- **Pisua alokatzen da Iturriotz kalean.** Tfnoa: 33 06 75. Aintzane.
- **Ikasle eta gazte jendearentzat pisua alokatzen da** Grupo San Juanen. Dei egin gaueko 9etatik aurrera 79 39 02 tfnoara.
- **Santa Teresan ikasle edo irakasleei pisua alokatzen zaie.** Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainua. Eguzkitsua. Prezio benetan interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Baserría salgai Elorrión.** Bizitzen hasteko moduan dago. Tfnoa: (94) 682 02 95.
- **Neska bat jende bila dabil** pisua alokatzeko Arrasaten. Tfnoa: (94) 616 74 46. Dei egin arratsaldeko 6etatik aurrera. Sorkunde.
- **Gasteizen, unibertsitate gertu** bi ikasle-entako pentsio osoa eskaintzen da. Tfnoa: (945) 26 73 28. Patxi.
- **Bi lagun behar dira Donostian pisua osatzeko.** Merkea! Tfnoa: 79 47 35. Patxi.

Lana

- **Bizikleta mekanikari kanadiarra** bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 97 38.
- **Gazte kanadiarrak ingelesezko klase** partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 97 38.
- **Frantsesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 27 06.
- **Magisteritza eginda daukan neska batek** OHOKO klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.
- **Emakumea behar da** pertsona nagusi bat zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa da. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 98 26.
- **Andra erizain laguntzaileak** eta gerontologian esperientziadunak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 53.
- **Ludi Berri musika taldea** zure ezteietan, bankete, kintada edo jaialdietan jotzeko gertu. Tfnoak: 77 00 95 (Juan Luis Lekunberri) edo 77 11 63 (Jose Luis Arregi).
- **Klase partikularrak ematen ditut,** edozein gai. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 31 48.
- **OHOKO klase partikularrak ematen ditugu.** Tfnoa: 77 04 98.
- **Ileapaindegi batean lan egiteko estetizien bat behar da.** Tfnoa: 79 87 62.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko andra bat gertu dago.** Tfnoa: 79 97 03.
- **Andra euskalduna** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klinika eta geriatrian** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 09.
- **Psikologian lizentziadun** batek etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 86 28.

Salerosketak

- **Ezkontzako soinekoa salgai** marfil kolorekoa eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 79 41 31.
- **Hobby- 475 markako karabana salgai.** Abantze, hozkailua eta berogailua dauka. Tfnoa: 79 84 17.
- **Bigarren eskuko kitarra elektrikoa, anplifikatzailea** eta bateria baten bila gabiltza. Saldu nahi baduzue dei egin 79 13 01 tfnora. Eli.
- **Razesa markako txirrindua salgai.** 52 tailakoa. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 03 80.
- **Larrun aldizkariaren lehendabiziko** 11 aleak saltzen ditut. Oskar. Tfnoa. (945) 22 95 71 (goizeko lehen orduan deitu).
- **Logela eta egongelako altzariak salgai.** Tfnoa: 71 52 45.
- **Ume eta matrimonio logelako** altzariak bota behar badituzue, dei egin eta gu pasatuko gara jasotzen. Tfnoa: 71 52 45.

Denetarik

- **Haurdunaldirako arropak gustora jasoko nituzke.** Tfnoa: 77 04 98. Goizez.
- **Urrezko eraztuna galdu dut** Ehune denda inguruan. Tfnoa: 77 04 98. Goizez.
- **Egunero goizeko 8etarako** Gasteizera joateko kotxe bila nabil. Tfnoa: 79 57 31.
- **Egunero goizeko 8etan** Gasteizen egon behar dut. Zure kotxean lekua izanez gero dei egin 79 60 04 tfnora. Carmen.

Aste Gazte

Bekak

- Arrasateko Ingurugiro Eskolan aritzeko lankidetzabeka bat deitu da. Iraupena: 95eko urriaren 9tik 96ko ekainaren 30a arte. Unibertsitate diploma, Lanbide Hezkuntza 3. maila edo pareko ikasketak dutenei zuzenduta. Epea: irailak 29.
- "Fundación Empresa Pública"ren beken deialdia, 30 urtetik beherako lizentziatu nahiz diplomatuei zuzenduta. Epea: urriak 6.
- CSIC-EFEK Kazetaritza Zientifiko bi beka deitu ditu. Bal-

dintzak: Kazetaritzako lizentziatura; esperientzia baloratuko da. Epea: urriak 16.

Ikastaroak

- "Euskal Dantzak" ikastaroa, "Lore Gazteak" taldearen eskutik. Hamabost urtetik gorakoentzat. Maila desberdinak. Bikote mistoek lehentasuna izango dute. Ostiralero, 7etatik 8.30etara. Urriaren 20an hasita Santamasak arte. Prezioa: 1000 pta.
- Argazki ikastaro bi:
 - a) Hastapen mailakoa, astearte eta ostegunetan, azaroaren

7an hasita; ordutegia: 6.30etatik 8.30etara; tokia: ASA elkartearen lokaletan; matrikula: 3.000 pta, 1.500 langabetu eta ikasleentzat. Plaza mugatuak.


b) Sakontze maila: urriaren 7.15etatik 9.15etara, guztira 20 ordu. Matrikula: 3.500 pta, 2.000ikasle eta langabetuentzat.

Lehiaketak

- "Elgoibarko IV. Komiki Lehiaketa". Nahi duen guztiak har dezake parte. Gaia librea. Zuri-beltzeko modalitate bakarra egongo da, tono grisak barne izango direlarik. Lanak euskeraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke. Epea: urriak 21.

"Hogei urte duzue, aukera zabala nagusi. Hogeitamar urtekin, adimena. Berrogeikin, berriz, zentzua."

BENJAMIN FRANKLIN



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Zuk eraman ... egingo duzu!



Jose Aranzabal-ek
zure erosketak plazoka
ordaintzeko txartel bat eskaintzen dizu.

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz, 15 • Tfnoa: 79 15 16

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktoarea, 2 • Tfnoa: 79 18 92

Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



Escort'95 berria.



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta. Baina errealitatea da. Suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.



Ford
Segurtasuna
Denontzat

Bere segurtasun sistema aktibo eta pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektronikoko sistema berria. Escort berriak Zetek 16V. edo Turbodiesel motore aurreratuak ditu eta aukera zabala 3, 4, 5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan.

Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.

Informazioa eta aprobak 900 51 51 51 tfnoan

MUGARRI



Araba Etorbidea, Z/g
Tfnoa: 79 07 44 / 54
Faxa: 79 62 54
ARRASATE